



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



**AUZO:** ELIZALDE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-05	19:05	20:30

**BILDUTAKOAK:**

<b>Udal ordezkariak:</b>	Jexux Leonet, Jon Del Olmo eta Olaia Lasa		
<b>Herritarrak:</b>	Euskaraz: 13		Elebitan: 0
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 10
	<30 urte:	31-50 urte: 1	51-65 urte: 7 >66 urte: 5

**AKTA:**

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
<b>2021 urtea</b>	<p>2021ko egoera azaldu da.</p> <p>Aipatu da Oiartzungo poligonoan 7500 lanpostu daudela. Berpiztu plana Jaurlaritzak atera du, eskualdeko plan estrategikoko lerroak ere kontuan hartuz eta gestioa batzuetan jaurlaritza eta udalaren artean egiten da, beste kasu batzuetan (enpleguari dagokionean) Oarsoaldea agentziarekin batera bideratzen dira.</p> <p>Berpiztu ekimena urbanismoaz gain bestelako konturik badagoen galdetzen da. Diru partida bat dago alor ezberdinetarako: gizarteratzeko, enplegurako, Pasaiko badia berritzeko, enpleguko zentro bat sortzeko, poligonoak berritzeko eta bidegorri sorrerarako.</p>
<b>2022eko aurreikuspena</b>	<p>2022ko aurreikuspena azaldu da.</p> <p>Aurrekontuak egiterako garaian genero ikuspegia kontutan hartzen den galdetzen du herritar batek. Erantzun da berdintasun planean murgilduta dagoela Udala; ekintza konkretuetan, dirulaguntzetan, kontratazioetan,</p>



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



langileriaren formakuntzan... kontuan hartzen den zeozer da gaur egun Udalean.

Gazteekin dagoen arazoa aurrekontuetan kontuan hartu beharreko zeozer dela uste du herritar batek. Gazteak deskonektatuta daude herriarekiko; azaleratzen duten "errebeldia" ez da politikoa, "desmadrea" baizik. Beste herritar batek kohesio sozial handiago bat sortzeko lana egin beharko dela garbi ikusten du, baina, Oiartzunen dugun errealtatean zaharren egoera ere kontuan izan behar da, energia kontuetan ere aldaketak, zaintzaren gaia, elikadura,... aurrekontuei eragiteko anbizioa eskatu behar bazaio, ariketa/gogoeta bat egin beharko litzake zein diren etorkizunerako apustu berriak. Eta guzti honetan faktore komunitarioa oso garrantzitsua izango da. Udaletik zaintzaren inguruan kezka badagoela eta ikerketa bat egitearen beharra ikusten da. Elikaduraren inguruan lan bat badago martxan. Aipatutako gai guzti hauekiko kezkan ados azaltzen da Udala.

Inbertsioetan ausardia pittin bat gehiago eskatu da, agian eskatu behar da prestamoren bat, ziur baitago herritar hau gauzak badaudela egiteko.

Klima aldaketa, trantsizio ekonomikoak eta beste hainbat gaiak agian Udaleko egonkortasuna puskatuko du eta agian azterketaren batean ikusiko da guzti honi aurre egiteko dirua beharko dela eta guzti hau aurrera eramateko berriz ausardia.

Etxebizitzen inguruan hausnartu beharko litzake daukaguna berrerabili eta baldintza egokietan jartzea, eta ez bloke berriak osatzea. Auzoak ez dira batere mixtoak, karretera ondotan egiten dira etxeak, baina hauek ez dute auzo identitaterik. Inbertsioetan jarri beharko litzake dirua Udalak etxe hutsak erosteko fondo putreek erosi aurretik; ondoren alokairu duin bat jarritz. Hauxe litzake herritarraren proposamena. Etxebizitzen konpetentzia Jaurlaritzarena da eta honi eskatu behar zaio, honek ez du esan nahi Udalak deus egin behar ez duenik. Gaur egun, udalak baditu 12 etxebizitza eta hauen kudeaketa oso zaila da. Udalak etxebizitza bulego bat ireki zuen, bi diagnostikoren baitan, batetik 35 urtetik beherako egoera eta bestetik etxe hutsen egoera. Programa honetan 14 bat etxebizitza alokairura bideratu ditugu momentu honetan. Udala alokairuaren filosofiarekin bat dator, baina ondoren oztopo askorekin topatzen da.

	<p>Lehen mendi lurrak erosten ziren, gaur egun egitea ere interesgarria litzakeela dio herritar batek eta ea gaur egun ere egiten ote den jakin nahiko luke. Azken urtetan ez da horrelakorik egin, gaur egun mendi lur gehiena Udalarena da. Landalurrekin dabil orain udala lehen sektorea bultzatzeko.</p> <p>Proiektu berriak martxan jartzeko garaian energia burujabetzaren bidea hartzea ere interesgarria litzake. Udalak mahai gainean duen gaietako bat da eta hau aztertzen dabil. Hurrengo urteetako erronketako bat izango da ziur, momentuz ez dago proiektu zehatzik. Herritar batek dio interesgarria litzakeela herritarrekin batera talde bat sortzea herri gisa hau kudeatzeko.</p>
<b>Auzoa</b>	<p>Aurkezpen guztia oso lotuta dago porlanarekin, inbertsio handienak honekin lotuta daude eta ikuspegi honek kezkatzen du herritarra. Milioi asko aipatu dira aurkezpenean eta guztiak porlanerako. Herri ikuspegi horretan non daude herritarrak? hori da herritarraren kezka? Zementutik haratago herriaren norantza norantz doan jakitea faltan bota du. Erantzun da egia dela aurkezpenean zementuaz hitz egiten dela, baina kontutan izan behar dugu horrek (zemento horrek) herriari ekarriko diona, atzetik duen guztia eta egia da horretaz ez dela horrenbeste hitz egiten. Aipatutako proiektu guztien atzetik kultura, euskara, herri kohesioa, ondarea, ongizatea...dago.</p> <p>Bidegorrira jaisteko zurkoko bidea eta anerreko zubiaren inguruko informazioa eskatzen du herritar batek, lehengo urteko batzarrean aipatu baitzen gai hau. Zubiaren kasuan eraikitzaileak beregain hartu behar du konponketa epaiak hala aginduta, zubia 2022an gauzatuko da. Zurkoko bidearena interesgarri ikusten da, baina oraingoz ez dago proiekturik egina.</p> <p>Petra Lekuonan Udalak baduen zer ikusirik galdetzen dute. Erantzuten zaio gaur egun Matia fundazioaren esku dagoela. Ez dago kabian proiektuaren barne. Herritarren aldetik ezezagutza handia omen dago eraikin honen inguruan, aipatzen du herritar batek.</p> <p>Gazteen kontuekin arazo bat dagoela dio herritarrak, arazo handia da eta orokorra da. Gaztea da arazo edota zaharra da arazo? Garbi dago gazteak lekua behar dutela elkartzeko. Ongi legoke diagnostiko bat egitea leku egokiak bilatzeko beraientzat. Gaia aztertu behar dela ados dago Udala, izan ere, plazako parranda giroa betiko arazoa izan da baina pandemia ondoren areagotu egin da.</p>



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>Landetxeko eraikinak ekarri dituen kalteak erreparatzearen gaia nola dagoen galdetzen du herritar batek. Hemendik hilabetera berriz azken neurketak egingo dira eta ziurtatuz gero ez dela mugimendu gehiagorik izango, ikertu beharko da zein izan diren kalteak eta konpondu.</p> <p>Elorrondo eta Santuseneko obrak oso ongi geratu direla dio herritar batek eta norabide bakarrarekin bat dator, nahiz eta batzuetan ez ongi etorri. Autobusaren parada berriz oso txikia dela deritzo eta jende asko elkartzen omen da bertan. Bere ustetan lekua badago handiago bat jartzeko.</p> <p>Santuseneko errepidean linea jarraia jarri da eta Belutene azpian garajeak dituztenak linea jarraia pasa behar dute ateratzeko eta sartzeko. Arazoa gehienbat Alzibartik gora datozenean eta garajera sartu nahi dutenean topatzen dute. Badaki jendeak ez diola kasurik egiten ari marra jarraiari.</p>
--	--

### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8
bilera ongi gidatu da	8,18
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	6,91
Auzotar kopurua	3,55
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	7,9
Egunaren egokitasuna	7,73
Orduaren egokitasuna	7,27
Lekuaren egokitasuna	8,18